

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan gure funtsezko elkarteak zeintzuk diren azalduko dugu, hau da, norekin sortuko ditugun aliantzak gure enpresa aurrera eramateko.

Samsung izango da gure enpresaren aliantza garrantzitsuenen. Guk mugikorren programazioa sortu eta ezarriko dugu mugikorretan, baina, mugikorrek egitea ez da gure lana. Beraz, mugikorrek egiten dituen enpresa batekin kontaktuan jartzea ezinbestekoa da gure enpresa aurrera eramateko. Azken urteetan, teknologiak etengabe ari dira aurreratzen eta enpresa asko egon dira eboluzio honetan. Horietako bat Samsung mugikor konpainia izan da, horregatik, beraiekin harremanetan jarriko gara eta hauek mugikorrek bidaliko dizkigute ondoren guk eraldatu ahal izateko. Hau ere funtsezkoa da, azkenean guk mugikorrek salduko ditugulako.



Media Marktekin egingo dugun aliantza oso garrantzitsua izango da gure enpresan. Bertan salduko ditugulako gure produktuak eta bertatik lortuko ditugulako irabazi nagusiak. Gure helburua, produktua Europa mailan ezaguna izatea eta bertan saltzea denez, oso garrantzitsua da Media Markt bezalako enpresa ezagun eta garrantzitsu batekin harreman sendo eta iraunkor

bat izatea, Media Markt izango dalako gure produktua Europatik zabalduko duena. Honek gure lana erraztea eta denda fisiko askotan gure produktua eskuragai izatea ahalbidetuko digu.

Beste elkarte bat SEUR enpresa izango da. Gure produktua Media Markterekin bidaltzea izango da aliantza honen helburua.

Banku batekin ere elkarlanean arituko gara gure dirua ondo kudeatzen dugula ziurtatzeko eta mailegu bat behar badugu bertan eskatu ahal izateko. Gure kasuan BBVA bankuan irekiko dugu kontua. Hasieran beraiek dirua utziko digute guk gure ideiak aurrera eraman ahal izateko eta ondoren dirua dugunean hori kudeatzen lagunduko digute, non inbertitu, zertan ez... Honek gure dirua ondo zainduta dugula ahalbidetuko digu.

Jendeak gure produktua ezagutu dezan, hainbat komunikabideekin jarriko gara harremanetan informazioa zabaldu eta helarazteko. Lehenik, iragarki hauetan nor garen eta zer egiten dugun azalduko dugu, ondoren, zer berrikuntza eta hobekuntza egingo ditugun azalduko dugu.

Europar ezagunak izan nahi dugunez, herrialde bakoitzeko telebista, irrati eta egunkari garrantzitsuenetan jarriko dugu iragarkia, adibidez, ARD (Alemaniako irrati-telebista), Europa FM (Espainiako irrati), Liberation (Frantziako egunkaria)... Horrela adin, interes eta leku desberdinetako jendearengana informazioa zabaltzea lortuko dugu.



Mugikorren programazioa egiteko eta enpresako kontuez hitz egiteko lokal bat edukitzea pentsatu dugu. Horregatik, Uggasa enpresarekin ere egingo dugu aliantza, herriko enpresa delako eta haiekin dugun tratua eta harrema ona delako. Beraiek lokal bat utziko digute guk hilabetero kuota bat ordaintzearen truke.

Hau guztiarekin esan dezakegu aliantzak sortuko ditugun funtsezko elkarteak Seur, Media Markt, Samsung, BBVA, komunikabide sareak eta Uggasa izango da.